

Infekzioa



SANTI LEONÉ

Diotenez, eutanasiari buruz eztabaida piztu da Espainian gizon batek eri zegoen emaztea hiltzen lagundu zuenetik. Baliteke. Oraingoz, emazteari duin hiltzen lagundu zion gizona ona edo gaiztoa ote zen ari dira batez ere aztertzen hedabide anitz. Tira, deus baino gehiago, gaiztoa dela ari dira erakusten saiatzen; gaiztoa, erran nahi baita bere osotasunean, bere gauza guzietan, manikeismoak manatzen duen bezala. Zernahi izugarrikeria egiteko gauza litzatekeen tipoa dela, alegia.

Izugarrikeria horiek argitze aldera, Intereconomía telebista ultraeskuindarrak ekarpen polita egin du, komatxo nazkagarri eta guzi: "Emaztea 'hiltzen lagundu zuen' gizonak Otegi aske uztearen aldeko manifestu bat sinatu zuen". ETA mamu bihurtu zenetik nonahi agertzen ahal zaigu, espektroei dagokien bezala, eta ni eta zu, irakurle, oharkabean ETA izaten ahal garen bezalaxe, eutanasia ere ETA izan daiteke, Arnaldo Otegiaren kontaktu kutsakorra dela medio.

Nolanahi den ere, jakin nahi nuke zenbateraino den arriskutsua, noraino ailegatzten den Otegi bide darion infekzio terroristagarria –neologismoa nirea da-. Komunean geruza bikoitzeko papera erabiliko balu –argi geldi dadila hipotesi bat dela, ez dut Arnaldo ezagutzen, are gutiago horrenbertzerainoko intimitaterik izateko-, hori ere ETA litzateke? Gosaltzeko hartzen dituen zerealak ere bai? Kartzelan, Bertolt Brecht-en *Vergnügungen* (Plazerak) poema irakurtzen omen zuen: horrek Brechten obra osoa bihurtzen du susmagarri edo poema hori bakarrik? Edo poema horrek zerrendatzen dituen gauza gustagarri guziak –leihotik begiratzea, elurra, antzinako musika- dira ETA baina ez gara ohartu?

Eutanasiarenarekin batera, noizbait erreakzionarismo espainolaren psikearen gaineko debatea ere piztu beharko genuke. ●



ADUR

"IKUSPEGI GEZURTI BATEN ARABERA, EMAKUMEEK TRADIZIOZ EZ DUTE DANTZATU"

OIER ARAOLAZA, DANTZARI ETA ANTROPOLOGOA

"Aita Donostiak eta hori esaten zutenean esan nahi zuten aurrekuan emakumeek ez dutela normalean dantzatu izan, baizik eta dantzuak izan direla. Gaur egun emakumeek aurrekua dantzatzeko dutenean, maiz badago horrelako kontzientzia bat, 'baimendutako' zerbait balitz bezala. 'Hau tradizioz gizonena zen, baina orain, berdintasunaren izenean, edo ez dagoelako mutilik edo... emakumeek ere egiten dute'. Bitxia da, ukatzen ari zen momentu bereko hainbat testigantza daudela, emakumeek aurrekua dantzatzeko zutela erakutsiz". [HIRUKA.EUS \(2019/04/10\)](https://www.hiruka.eus/2019/04/10/)

